


Nafarroako Eskoletako Liburutegien Azterketa: Hurbiltze saioa

Hobetzeko gakoak



ESKOLAKO LIBURUTEGIKO BILDUMA

BLITZ


Liburutegiko sagua



■ sorta Urdina

*Blitz Hezkuntza
Departamentuan*

1. Nafarroako eskoletako liburutegien
azterketa: hurbiltze saioa
Hobetzeko gakoak



■ sorta Berdea

Blitz Eskolan

AURKEZPENA

Hezkuntza erreformak hainbat baliabideren erabileran oinarritzen den ikasteko eredua bultzatu du. Baliabide horiek euskarri bat baino gehiagotan egin daitekeen irakurketa errazten dute eta curriculumeko arlo guztiak ikasteko lagungarri dira.

Ildo horri jarraikiz, Eskolako Liburutegiari dagokio baliabide horiek antolatzea, kudeatzea eta zentralizatzea, hezkuntza erkidego osoak ezin hobeki erabil ditzan.

Halaber, liburutegiak ikasle guztiei hezkuntza arloan aukera berdinak izateko laguntza ematen die eta ikasteko aukerak ikasle ororen eskura jartzeko, edozein izanik ere ikasle horien familien kultura maila.

Hortaz, Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuak eskoletara galde sorta igorri zuen, Nafarroako eskoletako liburutegien benetako egoera zein den jakiteko eta liburutegi horien eta, ondorioz, ikastetxeen kalitatea hobetzeko lanean hasteko. Galde sorta horren emaitzekin gutxi gorabeherako azterketa egiten ahal izan da. Inkesta horren emaitzak lan honetan aztertu dira eta, horrekin batera, liburutegiak hobetzeko proposamena egin da. Proposamen horren barne dira, besteak beste, eskolako liburutegi berria zer den aztertzea, liburutegiko arduradunei berriazko prestakuntza emateko programa eta hori praktikan jartzeko hainbat orientabide eskaintzea.

Ezbairik gabe txosten honen irakurketak geure ikastetxeetako liburutegia antolatzen eta liburutegiek ikaskuntzan jokatzeko duten papera ulertzen lagunduko digute.

Jesús Laguna Peñá

HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARIA







AURKIBIDEA

Sarrera	5
<hr/>	
I. Eskolako liburutegien egoera	6
1. Ikerketaren metodologia	6
2. Inkestaren emaitzak	7
■ Liburutegiaren gunea	7
■ Liburutegiaren arduraduna	8
■ Liburutegiaren antolaketa	8
■ Liburutegiaren informatizazioa	10
■ Liburutegia eta ikastetxea	10
■ Liburutegiaren eta kanpokoek arteko harremanak	10
3. Ondorioak	11
<hr/>	
II. Eskolako liburutegia hezkuntza erreformaren laguntzailea	12
<hr/>	
III. Eskoletako liburutegien hobekuntza	14
1. Eskolako liburutegia: gaur egungo ikusmoldea	14
2. Ikastetxeko liburutegia hobetzeko alderdi praktikoak:	16
■ Langileria kualifikatua	16
■ Liburutegia irekita nahiko ordu izatea	17
■ Agirien fondo egoki eta gaurkotua	17
■ Liburutegiaren eginkizunei egokitutako instalazioak eta ekipamendua	18
■ Liburutegiak kudeatzeko programa (ABIES)	18
<hr/>	
IV. Hezkuntza Departamentuak eskolako liburutegien arloan egiten duen lana.	20
1999-2000 ikasturteko Prestakuntza Plana.	22
<hr/>	
Bibliografia	23
<hr/>	



Sarrera






Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko Dokumentazio Zentroak Nafarroako eskoletako liburutegien gaur egungo gutxi gorabeherako egoeraren azterlana prestatu du. Horretarako unibertsitatekoak ez diren ikastetxeei igorri zitzairen inkesta hartu da oinarri.

Inkesta horren emaitzak oinarritzat hartu dira eskolako liburutegia ezagutzaren gaur egungo gizarteak sortzen dituen beharrei egokitzeko eta eredu berri bat ezartzeko egin behar diren jarduketak prestatzeko. Eredu horren printzipioak hauek dira:

- Liburutegia multimedia bidezko zentrotzat hartu behar da; aldi berean, ohiko liburutegia (idatzitako materialak), hemeroteca eta mediateka (ikus-entzunezko eta informatikako materialak) da. Ikasleak liburutegira informazio bila joan beharko du; informazio hori euskarri mota orotan izanen du eskura, berak bakarrik bilatuko du eta sare telematikoen bidez teknologiak eskura jarriko dizkion kanpoko baliabide guztiak erabiliko ditu.
- Liburutegia ikastetxeko *alma mater*a izanen da eta baliabideak curriculumeko arlo guztien eskura jarriko dira, hori dena, hezkuntza erreformak proposatzen duen metodologia aktiboa ikasleek erabil dezaten laguntzearren.
- Liburutegiak, eskolan, baliabideen erabilera denen eskura jartzen du eta ikasleek, edozein izanik ere euren jatorri soziokulturala, aukera berberak izan ditzaten bidea ematen du.



I. Eskolako liburutegien egoera

1. Ikerketaren metodologia

Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan 423 ikastetxe daude (315 ikastetxe publiko eta 108 ikastetxe pribatu-itundu) eta horiei guztiei inkesta igorri zitzaion. Ikastetxe horietako 234k erantzun zuten, hau da, ikastetxe guztien % 55ak.

Erantzunak bi multzotan banatu ditugu:

- 1 Multzoa.** Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak (derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza ez dutenak).
- 2 Multzoa.** DBHko ikastetxeak (derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza dutenak), Lanbide Heziketa eta Batxilergoa.

Inkestan alderdi hauek sartu dira:

■ Liburutegiaren gunea:

- Liburutegi nagusia
- Beste liburutegi batzuk
- Liburutegiaren erabilera

■ Liburutegiaren arduraduna:

- Arduraduna
- Arduradunak edo arduradunek zenbat orduz lan egiten du(t)en liburutegian
- Arduradunaren prestakuntza
- Arduradunaren eginkizunak

■ **Liburutegiaren antolaketa:**

- Liburutegia
- Fondoak:
 - Osaketa
 - Erregistroa eta katalogatzea
 - Gaurkotzea
 - Hedapena

■ **Liburutegiaren informatizazioa:**

- Datu baseen erabilera
- Liburutegirako ordenadoreak eskuratzea

■ **Liburutegia eta ikastetxea:**

- Liburutegiaren programazioa Ikastetxeko Curriculum Proiektuan
- Ikastetxean irakurzaletasuna bultzatzen ahalegintzea.

■ **Liburutegiaren eta kanpokoan arteko harremanak:**

- Inguruarekin
- Guraso Elkartekin
- Beste liburutegi batzuekin

2. Inkestaren emaitzak

LIBURUTEGIAREN GUNEA

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako hiru laurdenak badu liburutegi nagusirako gunea eta gehienek badute ikasgelako liburutegia.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe gehienek, liburutegi nagusiaz gain, badituzte departamentuko liburutegiak.

- Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako % 85ak badu liburutegi nagusirako gunea: % 74k Lehen Hezkuntzan eta % 97k Bigarren Hezkuntzan.
- Ikastetxeetako % 86k badu beste liburutegi mota bat (departamentukoa, ikasgelakoa, irakasleena, etab.): % 91k Lehen Hezkuntzan eta % 82,5ek Bigarren Hezkuntzan.
- Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako % 93k eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako % 42,5ek badute ikasgelako liburutegia.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako % 53k eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako % 21,5ek badute Departamentuko liburutegia.

Liburutegia ikastetxeko beste jarduera batzuk egiteko ere erabili ohi da.

- Ikastetxeetako % 75ean liburutegia beste jarduera batzuk egiteko erabiltzen da. Ikastetxeetako % 26an ikus-entzunezkoen gelarako. Ikastetxeetako % 29an eskola emateko eta ikastetxeetako % 29an bilkurak egiteko.

LIBURUTEGIAREN ARDURADUNA

Inkesta bete duten bost ikastetxetatik lautan bada liburutegiko arduradunen bat; horretarako propio jarritako arduraduna duten ikastetxeak gehienak dira.

- Ikastetxeetako % 34,5ean bada zeregin horretarako propio jarritako arduraduna. Ikastetxeetako % 24an arduraduna ikasturtez ikasturte aldatzen da. Ikastetxeetako % 4an irakasle talde bat arduratzen da liburutegiaz. Ikastetxeetako % 2an liburutegiaren ardura departamentu bakar baten esku dago. Ikastetxeetako % 12,5ean zenbait irakaslek euren ordutegia liburutegi-koarekin osatzen dute. Ikastetxeetako % 21ean ez da liburutegiko arduradunik.

Liburutegiaz propio arduratzen direnetatik bostetik batek badu bibliotekoniako prestakuntza.

- Liburutegiaz propio arduratzen direnen % 18ak nola edo halako prestakuntza jaso du; horien artean azpimarra daitezke, ABIES programa eskatu ondoren, eskolako liburutegiaren gaineko prestakuntza saioretara etorri zirenak.

Arduradun gehienek, astean, liburutegiko lanetarako ordu 1etik 5era bitarte erabiltzen dituzte. Arduradun bat baino gehiago dagoenean, liburutegian 5 ordu baino gehiago lan egiten dute.

- Arduradunen % 61ak ordu 1etik 5era bitarte. Arduradunen % 13,5ak 5 ordutatik 10 ordu bitarte. Arduradunen % 14ak 10 ordu baino gehiago. Arduradunen % 6ak irakastordu guztiak.
- Liburutegiaz arduratzen diren irakasleak bat baino gehiago direnean, % 26,5ak 5 ordu baino gehiago erabiltzen dituzte, % 2,5ak 5 ordutatik 10 ordu bitarte, % 15,5ak 10 ordu baino gehiago. Ez da ikastetxerik irakastordu guztiak liburutegiaz arduratzeko erabiltzen duenik.

Arduradunak bere denboraren zatirik handiena jendea hartzeko erabiltzen du.

- Arduradunen % 74,5ak jendea hartzeko. Arduradunen % 60ak katalogatze lanetarako. Arduradunen % 20ak irakurzaletasuna suspertzeko. Arduradunen % 14,5ak aholkularitza dokumentalerako. Arduradunen % 17,5ak ikasgelako lanetarako materialak prestatzeko.

Ikastetxetatik erdiak badu prestakuntza jasotzeko irakasleren bat.

- Ikastetxe horietako % 52a prestakuntza ikastaroren bat egiteko prest dago.

LIBURUTEGIAREN ANTOLAKETA

Ikastetxe gehienetan liburutegia irakastordu batzuetan irekita dago.

- Ikastetxeetako % 13an liburutegia ez da inoiz irekitzen.
- Liburutegia irekitzen dutenen artean, %12an atsedenetan soilik irekitzen da. Lehen Hezkuntzan, % 3,5ean eta Bigarren Hezkuntzan, % 20an.

- Ikastetxeetako % 31n irakastordu batzuetan irekita dago. Ikastetxeetako % 30ean irakastordu guztietan. Ikastetxeetako % 30ean irakastorduak bukatu eta gero irekita dago.

1000 aletatik 3000 ale bitarte duten ikastetxeak gehienak dira.

- 1000-3000 ale: % 30. 3000-5000 ale: % 18. 5000-10000 ale: % 10. 10000 ale baino gehiago: %9.

Ikastetxe gehienetako fondoak katalogaturik edo katalogatze bidean daude. Ikastetxe guztietatik herenean Sailkapen Hamartar Unibertsala (CDU) erabiltzen da.

- Liburutegiak katalogatuta ikastetxeetako % 45ean. Katalogatze bidean ikastetxeetako % 28an. Katalogatu gabe ikastetxeetako % 21,5ean.
- Nork bere katalogatze sistema du ikastetxeetako % 54an. Nazioarteko arauak ikastetxeetako % 32an.

Literaturako liburuak dira nagusi.

- Kontsulta liburuak % 21, informazio eta ezagutzarako liburuak % 27 eta literaturako liburuak % 45 dira.

Ikastetxe gehienetan aldioroko argitalpenak zaintzen dira eta liburutegian ikus-entzunezko eta elektronikako baliabide gutxi dago.

- Aldioroko argitalpenak ikastetxeetako % 77an daude; liburutegian berean egindako materialak ikastetxeetako % 19,5ean daude; ikus-entzunezkoak ikastetxeetako % 46an daude eta dokumentu elektronikoak ikastetxeetako % 17an daude.
- Liburutegian ikastetxeko ikus-entzunezkoen % 15a dago.

Liburutegietako erdietan erregistro liburua erabiltzen da.

- Erregistro liburua % 52an.

Liburutegietako erdiak baino gutxiagok badu katalogoa eta, oro har, egilearena da.

- Egileak antolatutako katalogoa % 48an. Gaiez gai antolatutako katalogoa % 12an. Izenburuz izenburu antolatutako katalogoa % 19,5ean. CDU erabiltzen da % 9an.

Liburutegietako erdiak aldian-aldian gaurkotzen ditu fondoak.

- Fondoak gaurkotzen dituzte % 55ean.

Ez da informazio aldizkaririk erabiltzen.

- Liburutegietako % 0,5ean informazio aldizkaria argitaratzen dute.

Mailegua asteko 3-4 egunetan zabalik.

- Mailegua asteko 3-4 egunetan ikastetxeetako % 67,4an.

Ikastetxeetako erdian baino gehiagotan liburutegirako aurrekontua dago. Herenean 100.000 pezetatik 200.000 pezeta bitarte erabiltzen da.

- Ikastetxeetako % 52an liburutegirako urteko aurrekontua dute. Ikastetxeetako % 17an 50.000 pezeta baino gutxiago. Ikastetxeetako %27an 50.000 pezetatik 100.000 pezeta arte. Ikastetxeetako % 35ean 100.000 pezetatik 200.000 pezeta bitarte. Ikastetxeetako % 12an 200.000 pezetatik 500.000 pezeta bitarte. Ikastetxeetako % 7an 500.000 pezetatik 1.000.000 pezeta bitarte. Ikastetxeetako % 2an 1.000.000 pezeta baino gehiago.

LIBURUTEGIAREN INFORMATIZAZIOA

Bost ikastetxetatik bitan liburutegia informatizatuta dute edo informatizatze bidean dago.

- Fondoa informatizatuta ikastetxeetako % 21ean. Informatizatze bidean ikastetxeetako % 21ean. Ikastetxeetatik erdietan bada ABIES aplikazio informatikoa. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean soilik erabiltzen da MARC formatuko programa.

Ordenadorea duten ikastetxeetatik, heren batean badago CD-ROM irakurgailua.

- Ordenadorea liburutegian duten ikastetxeetatik % 36an badute CD-ROM irakurgailua.

la-ia ez dago liburutegirako ordenadore bat baino gehiago duen ikastetxerik.

- Bigarren Hezkuntzako hiru ikastetxetan dituzte ordenadore bat baino gehiago liburutegirako.

LIBURUTEGIA ETA IKASTETXEA

Bost ikastetxetatik batean liburutegirako urteko programazioa egiten da.

- Ikastetxeetako % 21ean liburutegirako urteko programazioa egiten da. Ikastetxeko proiektu orokorretan sarturik dago.

Ikastetxeetako erdian baino gehiago egiten dira ikastetxean irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak, liburutegian berean eta kanpoan.

- Ikastetxeetako % 63an egiten dira irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak eta % 16an liburutegian berean egiten da lan hori.

LIBURUTEGIAREN ETA KANPOKOEN ARTEKO HARREMANAK

Ez dute ingurukoekin harremanik. Hala ere, Guraso Elkarteekin harremanetan daude.


- Liburutegietako % 15ean badituzte harremanak kanpokoekin.
- Liburutegi bakar batek ere ez du inolako harremanik auzokideen elkarteekin.
- Liburutegietako % 68k baditu harremanak Guraso Elkarteekin.


Beste liburutegi publiko batzuekin dagoen harremana eskasa da

- Harremana beste liburutegi batzuekin: % 17. % 17 horretatik: harremana ILZetako liburutegiekin, % 47,5 (Haur Hezkuntzako ikastetxeak, % 28,5 eta Bigarren Hezkuntzakoak, % 66,5). Harremana liburutegi publikoarekin, % 92.

3. Ondorioak

- Ikastetxe gehienetan bada liburutegi nagusirako gunea.
- Liburutegietako liburu gehienak literaturakoak dira eta berrikusteko eta gaurkotezko beharra dute.
- Aurrekontuaren zati bat materiala berritzeko erabiltzen bada ere, ez da nahikoa.
- Liburutegiak arduraduna badu ere, ez da egonkorra eta ez du prestakuntza egokirik.
- Liburutegiak ez daude behar bezala antolaturik eta ez dituzte nazioartean katalogatzeko erabiltzen diren arauak erabiltzen. Ez dute ez katalogorik, ez aldizkaririk argitaratzen eta ez dituzte euren fondoak hedatzen.
- Oso liburutegi gutxik ditu fondoak informatizaturik nahiz eta hori egiteko asmoa izan.
- Liburutegi gehienetan bada mailegu zerbitzua.
- Ez dago informazioa bilatzeko zerbitzurik.
- Ez dago liburutegirako propio prestatu den proiekturik eta liburutegiko jarduketak ez dira sartu Ikastetxeko Curriculum Proiektuan.
- Ez da kanpokoekin harremanik ezartzen, ezta beste liburutegi batzuekin ere.





II. Eskolako liburutegia hezkuntza erreformaren laguntzailea

Eskolako liburutegia LOGSEk bultzatu duen hezkuntza erreforma praktikan jartzeko behar den tresna da. Erreforma, curriculumaren arlo guztietan ikaskuntza aktiboan oinarritzen da eta ez da erreformarik egiten ahal baliabide bakar modura testuliburua edo ikasgai magistral bateko apunteak erabiltzen badira.

Hezkuntza erreformak esplizitoki sartu ditu curriculumean informazio iturrien erabilerekin eta ikasleen irakurketa arloko prestakuntzarekin zerikusia duten edukiak.

Irakaskuntzako arlo eta maila guztietan, oro har irakurketari dagozkion oinarriko kontzeptuak curriculumean sartzen dira. Eskolako liburutegiaren laguntzarik gabe kontzeptu horiek betetzerik ez dela frogatzeko aztertuko ditugu:

- Literatur testuak, teknikoak, funtzionalak... irakurtzea.
- Helburu askotariko irakurketa: ikastea, jostatzea, informatzea
- Kode askotarikoak eta elkarren artean erlazionatutakoak irakurtzea: ahozkoak, ikonikoak, soinuzkoak, ikus-entzunezkoak
- Komunikabideak irakurtzea.
- Informazio iturriak irakurtzea eta horiekin lan egitea.
- Euskarri berrietan (audio eta bideo zintak, euskarri informatikoak, e.a.) irakurtzea.

Ondoko prozedura hauek eskuratu beharra azpimarratu nahi da:

- Irakurketa kritiko eta ulerkorra.
- Hainbat informazio eta dokumentazio iturri erabiltzea.
- Lan zientifikoko teknikak eskuratzea.
- Informazioa bilatzeko, berreskuratzeko eta transmititzeko estrategiak garatzea.

Gure gizarteak eskaintzen duen informazio metaketaren aurrean, balore edo jarrera jakin batzuk garatzea beharrezkoa da:


- Kontsumo hautatua egiteko jarrerak.
- Mezuen azterketa kritikoa.
- Errealitatearekin alderatzea.
- Komunikabideen aurrean jarrera aktiboa.
- Nork bere irizpideak eta baloreak lantzea.

Curriculum ofizialari eta hori garatzeko egiten diren iradokizunei dagozkien agiri guztietan kontzeptu hauek azpimarratzen dira:

- Ikaslearen beraren ikaskuntza aktiboa.
- Desberdintasunei erantzutea.
- Ikaskuntza autonomorako estrategiak garatzearen garrantzia.
- Ikasten irakastea.

Zaila gertatzen da liburu bakar bat erabilita helburu horiek guztiak lortzea, aniztasunari erantzutea eta ikasleen interesari erreparatzea. Praktika metodologikoak aldatzeko behar diren baliabideak eskuratu ahal izateko, hezkuntza erreforman lana egin behar da. Egunkariak, aldizkariak, liburuak, CD-ROMak, bideoak, diapositibak... behar dira; erabili ahal izateko, jakina, egoki antolaturik eta zentralizaturik egon behar dute eta, orobat, hezkuntza erkidego osoaren eskura.

Bestalde, Konstituzioak dio herritar orok duela hezkuntza aukera berberak jasotzeko eskubidea. Bere etxean informazio iturriak eskuratzeko aukerarik ez duen ikasleak ikerketa egiteko desabantailak ditu, maila soziokulturala handiagoa izateagatik bere gurasoen liburutegia erabiltzeko aukera duen ikaslearen aurrean.



III. Eskolako liburutegien hobekuntza

1. Eskolako liburutegia: Gaur egungo ikusmoldea

Orain arte, eskolako liburutegia irakaslanaren aukerako zerbitzu osagarria izan da eta ez ikas-prozesuak laguntzeko oinarritzko baliabidea.

Ikastetxe batzuetan ez da liburutegirik nahiz eta indarrean dagoen arautegiak horretarako gunea behar dela eskatzen duen. Horretarako gunea izanik ere, beste eginkizun batzuetarako, hala nola, bilkurak egiteko, eskola banaketak egiteko, e.a. erabiltzen da.

Maiz aski liburutegi zerbitzua, bereziki Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako, Hizkuntza eta Literatura arloari soilik atxikitzen zaio.

Gehienetan liburutegia nola edo halako antolaketa duen liburu bilduma soila da eta eskaintzen duen zerbitzurik garrantzitsuena nahitaez irakurri behar diren libururak maileguan ematea da.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batzuetan, irakasle batzuek euren goardia-ko ordua liburutegian betetzen dute. Liburutegian hartzen dituzte, besteak beste, ikastetxera berandu iritsi diren ikasleak, hurrengo orduan azterketa

duzenak eta, are okerrago, portaera txarra izateagatik ikasgelatik bota dituztenak.

Aitzitik, gaurko egunean, eskolako liburutegiaz dihardugunean, multimedia baliabideez hornituriko zentro bat dugu gogoan, aldi berean material idatziak dituen ohiko liburutegia, hemeroteka eta ikus-entzunezko eta informatikako materialak dituen mediateka batera biltzen dituen alegia.

Liburutegi mota horrek berarekin dakar, hobeki kontrolatzeko, zerbitzu zentralizatua izatea. Zerbitzu hori ikasgelako liburutegiekin bateragarria da eta haiek hornitzen ditu eta maileguak egiteaz gain laguntza ere ematen die. Kudeaketa zentralizatuak balio du baliabideen hautaketa hobea egiteko, baliabideak ez bikoizteko eta baliabide horiek une oro non dauden jakiteko.

Ikusmolde horretatik abiatuz, eskolako liburutegia irakurketa sustatzeko erakunde izateaz gain ikasteko gunea ere bada. Beraz, curriculumeko arlo guztien ikaskuntza aktiborako lagungarri izan beharko du. UNESCOren arabera, helburu hauek erdietsi behar ditu:

- Irakaskuntza eta ikaskuntzako programari etengabeko laguntza ematea, eta hezkuntza aldaketa bultzatzea.
- Baliabide eta zerbitzu sorta zabala eskuragarri izanen dela ziurtatzea.
- Baliabide eta zerbitzu asko erdiesteko eta erabiltzeko behar diren oinarriko gaitasunak irakasleen eskura jartzea.
- Irakasleak liburutegiak aisiarako, informazioa jasotzeko eta etengabeko prestakuntzarako erabiltzen ohitaraztea.

Helburu horiek erdiesteko, eskolako liburutegiak ondoko eginkizun hauek bete behar ditu:

- Ikastetxean dagoen dokumentazio osoa biltzea, baita garrantzitsuak diren ikas-material eta baliabideak ere, edozein izanik ere horien euskarria.
- Baliabideak antolatzea erraz eskuratzeko eta erabiltzeko. Informazio sistema zentralizatuari esker, behar direnean erabiltzeko moduan izatea.
- Irakasleei eta irakasleei informazioa hainbat euskarritan ematea, curriculum beharrak, kulturako beharrak eta behar osagarriak betetzeko.
- Esparru egokia prestatzea irakasleek hainbat informazio iturri erabiltzeko behar diren gaitasunak eskura ditzaten. Irakasleei zerbitzuak eskaintzea alderdi horri dagozkion helburu pedagogikoak erdiesteko.
- Irakurketa sustatzeko jarduerak bultzatzea, irakurketaren bidez ongi pasatzeko eta informazioa biltzeko.
- Kanpoko beste informazio iturri eta zerbitzu batzuekin lotura lanak egitea, eta irakasleen eta irakasleen artean liburutegiaren erabilera sustatzea.

Liburutegia benetako baliabide zentroa izan dadin, ezinbestekoa da ondoko betebeharrak betezea:

- Langileria prestatua.
- Liburutegia irekita nahiko ordu izatea.
- Agirien fondo egoki eta gaurkotua.
- Liburutegiaren eginkizunei egokitutako instalazioak eta ekipamendua.

2. Ikastetxeko liburutegia hobetzeko alderdi praktikoak

Ondoren, aurreko idazatian aipatu diren alderdiak analizatuko ditugu eta gaur egun ditugun baliabideez baliaturik eskolako liburutegiak nola hobeto daitezkeen aztertuko dugu. Halaber, ez dugu ahaztu behar lanean segitu behar dugula baliabide zentro modernoak bilakatu arte, hau da, hezkuntza erkidegoak dituen prestakuntza eta informazio beharrei erantzuteko.

LANGILERIA PRESTATUA

Uste dugu beharrezkoa dela arduraduna finkoa, egonkorra eta prestatua izatea, hau da, ikastetxeko liburutegiko jarduketak zuzentzearen ardura hartuko duen diziplinarteko taldea koordinatuko duen pertsona izatea. Hala eta guztiz ere, kontuan izanik lan horrek zer ahalegin dakarren berarekin, zenbait formula proposatu nahi dugu liburutegia abian jartzeko eskura dauden giza baliabideez baliaturik.

Ikastetxeen autonomiak, ahal den heinean, bidea ematen du klaustrokide baten baimen gehiagoren ordutegiak doitzeko eta, ondorioz, eskolako liburutegia antolatzeko proiektua aurrera ateratzeko konpromisoa hartzeko.

Tradizioz, eskolako liburutegiko irakasle arduradunak hizkuntza eta literaturako arlokoak izan dira. Hala ere, arlo horretan nahitaezkoa da literatur irakurketa baina gainerako arlo guztietan, jakina, irakurketa ikasteko metodo gisa erabili ohi da. Beraz, edozein klaustrokidek, edozein izanik ere irakasten duen irakasgaria, liburutegiaren ardura bere gain har dezake.

Hurrengo ikasturteko prestakuntza planean sarturik dago liburutegiko arduradunen prestakuntza eta, gainera, ikasturtean zehar horiei eman beharreko aholkularitza. Halaber, garrantzitsua da berariazko prestakuntza jasotzen dituzten liburutegiko lanak nazioarteko arau batzuen menpe baitaude.

Proiektu hau liburutegirako lana eginen duten eta arduradunarekin gutxienez astean behin bilduko diren irakasleen diziplinarteko taldeak bultzatu behar luke. Talde horrek Hezkuntza Departamentuaren aholkuak ere jasoko lituzke.

LIBURUTEGIA IREKITA NAHIKO ORDU IZATEA

Zuzendaritza taldeari dagokio ordutegia prestatzea liburutegia, eskola ordutegian eta ikastetxeko irakasleekin, ahalik eta ordu gehienez irekita izateko.

Orain arteko esperientziari bagagozkio, liburutegiaren abia egokia izanen da baldin eta ikastetxean proiekturen bat badago eta proiektu horretan klaustro osoak parte hartzen badu. Gertatu ohi da ikastetxe horietan liburutegiak hezkuntza erki-dego osoa engaiatzen duela eta ikasleei uzten zaiela, kurtsoz kurtso eta eskola ordutegian, liburutegiaren ardura euren gain hartzen eta, eskola ordutegitik kanpo, Gurasoen Elkarteari.

Ahalegin handia egin ondoren, konponbide horiek hainbat ikastetxetan hartu ohi dira, eskolako liburutegiaren proiektua irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko tresna dela sinesten dutenetan alegia.

AGIRIEN FONDO EGOKI ETA GAURKOTUA

Liburutegiko diziplinarteko taldeak eta bere arduradunak ikasturte bakoitzerako erosketen egitasmoa egin behar dute. Lehenik, fondoak arakatu behar da eta hori egin ondoren fondoaren osaketa zein den ebaluatu behar da, gabeziak konpontzeko eta lehentasunak ezartzeko.

Liburutegia berritzeko aurrekontu finkoa eduki beharko litzateke eta, berria izanez gero, hasierako inbertsioa egin beharko litzateke. Ezinbestekoa da fondoak erosi aurretik zer erosi nahi den jakitea eta erosi behar den horren aurreikuspena egitea. Maiz aski dirua berehala gastatu behar denez eta diru hori ez galtzeagatik, nolana eta presaka gastatu ohi da eta beti ez dira behar diren fondoak erosten.

Material guztiak liburutegian zentralizatzea izanen litzateke zuzenena. Behin katalogatu eta erregistratu ondoren, ikasgelei, departamentuei eta abarri maileguan utziko litzaizkieke. Behin erabili ondoren, berriz itzuliko lirateke liburutegia eta maileguan hartutako beste sail baten ordez hartuko lirateke.

Era berean, komenigarria da hurbilen den liburutegi publikoarekin harreman sendoa izatea, ikastetxeak behar izanen dituen fondoak eros ditzan eta maileguak eska diezazkion. Hauxe da, ezbairik gabe, inolako kosturik gabe baliabideak erabiltzeko modua. Liburutegi publikoak eskolako liburutegiari eskaini diezazkioke, besteak beste, gai monografikoak ikertzeko eskola materialak, egileen, mendeurrenen eta egun berezien eta abarren gaineko erakusketak.

LIBURUTEGIAREN EGINKIZUNEI EGOKITUTAKO INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUA

Legeak dio ikastetxeek euren liburutegia izan behar dutela: 1004/1991 ED, ekainaren 14koa (1991-6-26ko EAO) eta 389/1992 ED, apirilaren 15ekoa (1992-4-28ko EAO).

Ikastetxean liburutegirik ez badago, ahalegin guztiak egin behar dira sortzeko. Liburutegirik badago, behar den bezalako ekipamendua behar du. Garrantzitsua da liburutegia denen proiektua izatea; hori dela-eta, departamentuen, guraso elkarten eta abarren lankidetzak eskatu behar da. Gero, guneak banatu behar dira eta liburutegiaren eginkizunen arabera giroak sortu behar dira. Hori egin ondoren, liburuak seinalatzatu behar dira eta eskolako liburutegietarako prestatu dagoen Saiikapen Hamartar Unibertsalera (CDU) egokitu behar da. Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko Dokumentazio Zentroak antolatuta ohi dituen prestakuntza ikastaroetan liburutegiko zeregin horiek eta beste batzuk azter ditezke.

LIBURUTEGIAK KUDEATZEKO PROGRAMA (ABIES)

ABIES programa ezartzeko, liburutegian CD-ROMa duen ordenadorea behar da (horretarako nahikoa da 486 bat). Ordenadore horretan ABIES Programa instalatzen ahal da. Programa horrek antolaketa maileguko eginkizunak anitz erraztu ohi ditu. Urtero deialdia eginen da ikastetxeek deialdi horretan parte har dezaten, aipatu programa informatiko horri dagokion prestakuntza jasorik eta liburutegiaren erabilera pedagogikoa lantzeko lehen urratsak zein izan behar diren erabakirik. Liburutegia curriculumaren arlo guztien ikaskuntza aktiborako lagungarria da.


Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Teknologia Berrien Programaren zuzendariak, Jaime Denisek, prestatu du programa hori, Liburutegi Nazionalaren arduradun nagusienekin batera. Une honetan UNESCO aztertzen ari da gero hainbat hizkuntzataraz itzultzeko. Era berean, herri-hizkuntzei egokitzeko egitasmoa ere abian da. Oso lantresna baliotsua da liburutegia errazago antolatzen laguntzen baitu: katalogatzea, etiketatzea, maileguan ematea... CD-ROM bat prestatu da

eta barnean ABIES Programa eta haur eta gazte literaturako 300.000 liburu katalogatu sartu dira. Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Liburutegiko, Liburutegi Nazionalako eta Germ/n S/nchez Ruip"rez Fundazioaren fondoetatik atera dira. Guk geuk erroldatu nahi dugun liburua CD-ROMean egoteko dugun aukera handia da (% 80koa) eta horrek liburutegiko lanak izugarri errazten ditu. Gainera, munduko liburutegirik garrantzitsuenetan erabili ohi duten MARC formatuan (ordenadoreko hizkuntzan) egina dago eta horrek bidea ematen du datu base batetik bestera erregistroak trukatzeko. Interneten bidez edozein liburutegitako katalogoetako erregistroak eskura ditzakegu eta soilik berariazkoak diren datuak gureari gehitu. Beste alde batetik, beste datu base batzuetako (ACCES, DBASE...) erregistroak erraztasun osoz sartzeko aukera ere hortxe dugu.

Liburutegian erabiltzen den ordenadoreak CD-ROMik ez badu, ACCES edo DBASE edo beste datu base batean egin daiteke lana eta gero ABIESen sartu. Lehenik eta behin, jakin beharko genuke erregistro bakoitzean zein eremu bete behar den ABIES programarekin parekatu ahal izateko eta, orobat, datu horiek ABIES programan sartzen direnean, ahalik eta datu gutxien gal dadin. Horrez gain, norberak diseinaturiko eremuak saihestu behar dira eta katalogazio bibliografikora-ko nazioarteko araeu egokitzen jakin behar dugu.

Liburutegirako ordenadorerik ez badago, gutxi erabilitako bat bilatu beharko dugu, beste zerbitzuez gain, liburutegiari dagozkionetarako baliagarri izanen dena.

Ordenadorea izan edo ez izan, fondoak antolatu eta banatzeko Sailkapen Hamartar Unibertsala (CDU) sistema arautzailea erabiliko dugu. Sistema hori munduko liburutegi guztietan erabili ohi dena da. Hori horrela, ikasle batek edozein liburutegi erabili nahi badu ez du ahalegin berezirik egin beharko.



IV. Hezkuntza Departamentuak
eskola liburategien arloan
egiten duen lana.

*1999-2000 ikasturteko
prestakuntza plana*

Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuak, Hezkuntzarako Teknologia Berrien Programaren bidez, iazko ikasturtean informatika ekipamenduaz hornitzeko deialdia argitaratu zuen. Ekipamendu hori liburutegia hezkuntza erreformaren esparruan erabiltzeko proiektua aurkeztu zuten ikastetxeei eskaini zitzaien.

10 ikastetxe aukeratu ondoren, ABIES liburutegia kudeatzeko programaz gain, urruneko prestakuntza ere ematen ari zaie Interneten bidez.

Irailean hautaturik gertatu ziren ikastetxe horietarako prestakuntza ikastaroa antolatu zen. Hezkuntza eta Kultura Ministerioko aholkulariek eman zuten ikastaroa eta urruneko ikastaroaren eta ABIES programaren funtzionamenduaren berri eman zuten.

Ikastetxe guztiei urrian beste deialdi bat igorri zitzaien. Deialdia irekia izan zen eta helburua ikastetxeek ABIES programa eskatzea zen. Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko Dokumentazio Zentroak eman zuen ikastaro trinkoa eta, besteak beste, landu ziren liburutegiaren kontzeptu berria, haren antolaketa, Interneten erabilera eta abar.

Hori horrela, 1998-99 ikasturtean jarduera hauek egin dira:

- PNTeren deialdia, eskolako liburutegiak informatikako ekipamenduaz hornitzeko eta hautaturik gertatu ziren ikastetxeei eskolako liburutegien gaineko prestakuntza emateko Interneten bidez.
- Eskolako liburutegia antolatzeko eta ABIES programa ikasteko ikastaro trinkoa.
- Eskolako liburutegiak sustatzeko esperientzien gaineko saiok.
- Unibertsitatekoa ez den hezkuntza sare dokumentala sortzea. Sare horretan sartuta daude ILZak. Sare horrek ikastetxeei eskolako liburutegien arloan aholkuak emanen dizkie eta eskolako liburutegien sareari laguntza emanen dio. Sare horien xedea da jarduketak koordinatzea, irizpide bibliografikoak normalizatzea eta bateratzea, baliabideak partekatzea eta ahaleginak bat egitea.
- Nafarroako eskoletako liburutegien gaurko egoera zein den jakiteko egin den inkesta eta horren emaitzak argitaratzea.
- Eskolako liburutegiaz gaur egun den kontzeptua hezkuntza foroetan hedatzea.
- Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan aritzeko hitzarmenaren zirriborroa prestatzea.
- 1999-2000 ikasturterako deialdia prestatzea. Dokumentazio Zentroak eta Teknologia Berrietarako Programak, biek batera, prestatu dute eta xedea eskolako liburutegiak informatikako ekipoez hornitzea da.
- Eskolako liburutegien gaia Irakasleendako 1999-2000 ikasturteko Prestakuntza Planean sartzea. Eskolako liburutegien programa hau ILZ guztietan landuko da.

Prestakuntza Plana. 1999 - 2000 ikasturtea

ESKOLAKO LIBURUTEGIAK
DOKUMENTAZIO ZENTROA. P.B.Z.



	Izenburua	Iraupena	Noiz	Tokia
URRUNEKO IKASTAROA	ESKOLAKO LIBURUTEGIAK			
	1. Bibliotekonomia	60 ordu	Urritik martxora	Interneten
	2. Eskolako liburutegia sustatzea eta ikastetxeetan irakurzaletasuna bultzatzea			
	3. Haur eta gazte literaturaren ikuspegia			
	4. Eskolako liburutegi baterako proiektua prestatzea			
IKASTAROA	ESKOLAKO LIBURUTEGIAK ANTOLATZEN HASTEKO IKASTAROA. (ARDURADUNAK)			
	1. Eskolako liburutegia Erreforman	16 ordu	Irailetik urrira	ILZ guztietan
	2. Eskolako liburutegiaren antolaketa			
	3. Internet, eskolako liburutegirako lantresna			
	4. Eskolako liburutegiaren sustapena			
IKASTAROA	ESKOLAKO LIBURUTEGIAREN INFORMATIZAZIOA. ABIES PROGRAMA	12 ordu	Urritik azaroa	ILZ guztietan
	JARDUNALDIA	ESKOLAKO LIBURUTEGIA SUSTATZEA: ESPERIENTZIAK	12 ordu	Apiriletik maiatzera

IKASTETXEETI, MINTEGIEI, LAN TALDEEI... AHOLKUAK EMATEA

BIBLIOGRAFIA

-
- ASKOK, *Bibliotecas Escolares (CD-ROM)*, Madril, M.E.C., 1998.

 - ASKOK, *La biblioteca escolar, un derecho irrenunciable*, Madril, Asociaci3n espaEola de amigos del libro infantil y juvenil, 1998.

 - ASKOK, *I Simposio de Canarias sobre bibliotecas escolares y animaci3n a la lectura*, Canarias, Gobierno de Canarias, 1995.

 - CARRERAS, C., MARTÈNEZ, C. y ROVIRA, T., *Organizaci3n de una biblioteca escolar, popular o infantil*, Barcelona, PaidSs, 1997.

 - COLOMER, Teresa, *La formaci3n del lector literario*. Barcelona, Fundaci3n Germ3n S/nchez Ruip"rez, 1998.

 - DOBRA, Ana, *La biblioteca popular, pœblica y escolar*, Buenos Aires, CICCUS, 1997.

 - GONZÇLEZ, Jos" M. (coord.), *Biblioteca pœblica y escuelas, una cooperaci3n necesaria. 2as Jornadas 3 biblioteka pœblica y pol"micas culturales*3 Barcelona, Fundaci3n Bertelsmann, 1998.

 - JORDI, Catherine, *Gu"ma pr/ctica de la biblioteca escolar*, Madril, Fundaci3n Germ3n S/nchez Ruip"rez, 1998

 - LEiN OTERO, Luis y MARTÈN BRIS, Mario, *C"mo organizar una biblioteca escolar (infantil, primaria y secundaria)*, Madril, Escuela EspaEola, 1998.

 - MINISTERIO DE EDUCACi3N Y CULTURA, *Bibliotecas pœblicas y bibliotecas escolares: una colaboraci3n imprescindible*, Madril, M.E.C., 1996.

 - MINISTERIO DE EDUCACi3N Y CULTURA, *El programa de bibliotecas escolares*, Madril, M.E.C., 1996.

 - MINISTERIO DE EDUCACi3N Y CULTURA, *La biblioteca escolar en el contexto de la reforma educativa*, Madril, M.E.C., 1995.

 - MINISTERIO DE EDUCACi3N Y CULTURA, *Un nuevo concepto de biblioteca escolar*, Madril, M.E.C., 1996.

 - RUEDA, Rafael, *Bibliotecas escolares. Gu"ma para el profesorado de educaci3n primaria*, Madril, Narcea, 1998.

 - VALVERDE, P., CARRASCO, E. y MU—OZ, J.M., *La biblioteca un centro-clave de documentaci3n escolar*, Madril, Narcea, 1997.
-





BLITZ

Liburutegiko saga

IZENBURUA *Nafarroako Eskoletako
Liburutegien Azterketa:
Hurbiltze saioa
Hobetzeko gakoak*

ARGITARATZAILEA Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua
DISEINUA Asis Bastida
IMPRIMAKETA Gráficas Ulzama
L.G. NA - 2.116/1999





Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de
Educación y Cultura